

LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEEKIN KOORDINAZIOA

Institutuko eta Amara Berri, Ikasbide eta Katalin Erauso ikastetxeen arteko koordinazioa bi esparrutan oinarritzen da: informazio trukaketa eta ikasleentzako laguntzen antolaketan.

Aurrekoa gauzatzeko ekintza hauek burutzen ditugu:

- a) DBHko 1. mailako ikasleen lehenengo hiruhileko emaitza akademikoen aurkezpena eta indartze neurrien informazioa lehen hezkuntzako ikastetxeei (abendua-otsaila).
- b) Familien matrikulazioen antolaketa eta jarraipena (urtarrila-otsaila).
- c) Informazio trukaketa DBHko 1. mailan indartze neurriak antolatzeko.
- d) Institutura ikasleen bisiten antolaketa (ekaina).
- e) Ikasleen Norberaren Ebaluazio Txostenak (ekaina-uztaila).